

BALOREZKO PROPOSAMENA

Balorezko proposamenak gure proiektuak konpontzen dituen arazo edota beharrak zehaztu behar ditu, honekin batera, gurea bezalako beste produktuekiko zein berezitasun dugun ere. Beste hitz batzuetan esanda, bezeroa gure produktuarengatik ordaintzeko prest egoteko zergatia da balorezko proposamena.



MANDEKO

MANDEKO sortzerakoan, etxeko kontrolarekin izaten diren arazoei konponbide bat bilatzea dugu helburu. Hala nola, mandoa baltza edo kolore ilunekoa izanik erreztasunez galtzearen edota honen kolore eta sinpletasunaz aspertzearen arazoei. MANDEKOk gure kontrolari balore kualitatibo bat ematen dio, estetiko edota pertsonalizatua.

MANDEKOk, manduaren diseinua nahi bezain beste aldatzeko aukera ematen digu, erabiltzen den plastikoa erraztasunez kendu daitekeenez, nahi beste diseinu berri jar daitezke mandoaren inguruan.


Beste markei dagokienez, egia da badaudela antzerako produktu edota zerbitzuak eskeintzen dituztenak. Esaterako, batzuek hydro dipping bezalako teknikak erabiliz kontrolak pertsonalizatzen dituzte, baina hauek normalean dekorazio gisa besterik ez dira erabiltzen, hau da, hauen funtzio bakarra kontrolari balore estetikoa gehitzea litzake eta oso zaila litzake teknika hau telebistako kontroletan aplikatzea. Teknika hau, kontrolei dagokienez, PlayStationekoetan soilik egiten da, hauen zati elektronikoa eta plastikoa separatu daitezkeelako, aldiz, telebistako kontrolarekin hau ezta posible. Beste marka batzuek, berriz, kontrola babesteko "silikonazko zorro" bezalako batzuk eskeintzen dituzte, baina hauek askotan sendoegiak izan daitezke eta ez dira oso erosoak izaten. Gainera, gure produktuak ez du telebistako kontrola babestea bilatzen, hauek apurtzea zaila baita.

Eskaintzen dugun zerbitzuak ondorengoan datza. Zerbitzua beste denda edota lokal batzuei saluko genioke. Bertan, gure produktuaren hainbat adibide aurkeztuko dira, baina instagrama erabiliko dugu gehienbat gure produktua aurkezteko, hala ere, dendako langileak ere produktuaren inguruko informazioa izango du. Instagramean, jada diseinaturiko diseinuak aurkeztuko ditugu, eta bezeroen aukerak aipatuko genituzke. Hau da, bezero batek bere diseinu propioa egitea nahi balu, bertatik eskatu beharko luke gurekin txanda. Dendara baldin badao honen eske, bertako langileak gurekin telematikoki komunikatzeko esango lioke. Kasua hori izanik, bezeroarekin komunikatuko ginateteke eta


data bat zehaztuko genuke diseinua zehazteko, perfektionatzeko edota diseinatzeko. Honetarako, partekaturiko lokalean bilduko ginateke. Hau egin ondoren, prozedura gure diseinuetako bat aukeratu duen bezeroaren berdina litzateke. Gure produktua salgai dagoen denda batera joan beharko litzake, eta bertara kontrola eraman. Bertako langileak jakingo luke nola jarri diseinua.

MANDEKOn eskaintza, eroso, fina eta estetikoa dela esan genezake.

Hau litzateke MANDEKOn logoa:



Eta hau izango litzateke produktuaren disenua:



Hauek lirateke diseinu batzuk:

